

Elgoibar - 1257. zenb.
XXX urtea - 2022-09-23



TOKIKOM

BARREN



Sototik Garagartzara musikaren harian

Biba Hasier! Hasier Etxeberriaren oroimenez

Joxe Azurmendi

Herria, hizkuntza, kultura

Haritz Azurmendi eta Lorea Agirre ELKARRIZKETAN

Joxe Azurmendiren pentsamenduaren eta obraren gainean.
Euskal Herriko filosofo eta saiakeragile oparoena mintzagai hartuta.

Bere ezaugarri garrantzitsuena filosofia guretik landu izana da. Hori izan du urgentzia: mundua guretik pentsatzea. Nazioaren -herriaren, hizkuntzaren, kulturaren- pentsalari handiena dugu, garen gu horri edo izan nahi dugun gu horri izateko arrazoiak emateko.

Irailak 28, asteazkena
19:00

Aita Agirre kulturguneko areto nagusian



Argitaratzailea:



BARREN

ELGOIBARKO IZARRA
Bakartzaren Topagunea

Babeslea: Laguntzaileak:

ELGOIBAR
UDALA
AÑUNTAMIENTOMENDIARO
1983

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aita Agirre Kulturunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR - 943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren@elgoibarkoizarra.eus
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola, Maialen Sanchez. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Ane Astiazaran

Itzultzailea

Itzali telebista



“Urtetik urtera kulturak leku handiagoa hartzen du nire helburuetan, modu kontzientean, gainera”

Bigarren “urte berri” moduko bat izaten da iraila askorentzat. Helburu berriak, proiektu berriak, ilusio berriak. Energiak ekin ohi diogu irailari, baina egunerokotasunaren erritmo biziak ez digu askotan barrura begiratzeko tarterik uzten. Horregatik izango da aste honetan espazio hau nire urte berriko asmoak txukun antolatzeko tokia, eta zergatik ez, irakurleari ere gauza bera egiteko deia.

Urtetik urtera kulturak leku handiagoa hartzen du nire helburuetan, modu kontzientean, gainera. Esate baterako, ez dut euskarazko ikus-entzunezkoetara jotzeko ohiturarik, eta ez naiz eskaintza faltaz ari, *Argia*-ren multimedia atalean ia bostehun dokumental baitaude guztion eskura. Ziur naiz nork bere interesekoak topatzeko aukera izango duela.

Etxetik kontsumi ditzakegun ekoizpenez gain, nire asmoetan sartzen da antzezlan gehiagotara joatea. Komeni da gogoraraztea Elgoibarkoetan Gazte Txartelarekin 3 euroan lor ditzakegula sarrerak. Horrez gain, Donostiako Victoria Eugenia eta Antzoki Zaharreko emanaldietan ere “Ordu gaztea” arobetxa dezakegu, ordu erdi lehenago bertararuta 3 euroan sartuko baikara antzezlanetara.

Euskarazko podkasteen gorakada arobetzatzea ere sartzen da nire planen barruan. Gomendio gisa, azkenaldian bazkariak prestatzen ditudan bitartean konpainia egiten didaten *Bertikala* (barrez lehertzeko) eta *Barruan gaude* (euskal sortzaileak barrutik ezagutzeko).

Literaturarekin bukatuz, orokorrean poesia gehiago irakurtzea da nire helburua, eta konkretuki poesia gehiago irakurtzea euskaraz. Horretarako daude Susa argitaletxearen Munduko Poesia kaierak, euskarara ekarriak. Itzulpenekin lotuta dago nire azken asmoa ere, tarte txikia eskaintzen baitiot euskarara itzulitako literaturari. Inork hutsune berbera sumatzen badu, bota begiratu bat Igela argitaletxearen katalogoari, sekulako lana egiten baitute alor horretan.

Urte berriko asmoak indibidualki proposatzea baino kolektiboki partekatzea ederragoa delako, horra nire proposamenak. Bota orain zeuenak.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Felix Parapan, bizitzaren alde!

Mutrikuko tanatorioan ikusi nuen azkenekoz Felix, hileta baten bueltan, duela urte gutxi. Ezagutu, berriz, mutikotan: 15 bat urte edukiko nituen... Erlora joateko plana egin genuen 4 lagunek kuadrillan. Tortilla usaineko geure *makutoak* soinean hartu eta Sallobente aldera abiatu ginen, mendiko botak jantzita. Bide batez, autoak pasatzen zirenean, auto-stopean jartzen ginen, eta halako batean Peugeot 504a parean geratu zen, eta autoan sartu ginen. Begi biziko gizon hark nora gindoazen galdetu zigun. Esan zigun eramango gintuela Madarixaraino, baina lehenengo baserri batean (Parapanen) sartu-irtena egin behar zuela, zerbait hartzeko. Felixek 50 litroko 4 bidoi ur sartu zituen maletategian, eta berriz ere kotxera sartutakoan, esan zigun: "Milioi bat pezeta emango dizuet asmatzen baduzue zertarako den ur hori guztia". Guk, harrituta, erantzun batzuk eman genizkion, baina ez genuen asmatu. Ura ez zen edateko, ez garbitzeko, ezta landareak urreztatzeko ere...

Ura Madarixa aldeko putzu handi bateko zapaburuen bizitzak salbatzeko zen. Sikate handia zegoen, eta ura agortzen ari zitzairen zapaburuei. Bertara bota nahi zuen ura Felixek, natur bizitzak aurrera egin zezan. Txundituta geratu ginen gizon haren sentiberatasunarekin eta ekimenarekin.

Gerora jakin nuen nik nor zen gizon hura, Elgoibarko Izarraren bueltan lanean hasi nintzenean.

Bai, Felixek "bizitzaren alde" egin zuen bizi osoan. Bizitza erdigunean jarri eta -gintzan jardun zuen, herrigintzan, kooperatibagintzan, euskalgintzan... Eta bizigintzan, ekosistemen alde.

Eta azpimarratu nahi nuke hori guztia egin ahal izan zuela alboan emakume handia eduki duelako. Bion artean egin zenuten. Eskerrik asko, bioi!

Abel Irizar Mantzizidor

Debabarreneko VI. Raid-a

Bi urteko etenaren ondoren, aurten berriro gogo handiz eta ilusioz antolatu ahal izan

dugu Debabarreneko orientazio raida. Joan zen larunbatekoa seigarren edizioa izan zen eta aurrekoa bezalaxe, Deba eta inguruetako mendietan ospatu zen. Ezinezkoa litzateke boluntarioen laguntzarik gabe mota honetako proba bat antolatzea. Hori dela eta, Morkaiko Mendizale Elkarteko Raid taldearen izenean, eskerrak eman nahi dizuegu Debabarreneko VI. Raid-a antolatzen lagundu diguzuen guztioi:

Elgoibar, Deba eta Mutrikuko Udalak, Elgoibarko kirol patronatua, Debako Udaltzaingoa eta Udaleko brigadako langileak, Danobat, Alcorta, Iriondo Kirolak, Astigarraga, Turbina, Txarriduna, Deuko Izarra, Mauxitxa gaztak, Ainhoa Fisioterapia, Lizagasar, Ttoonav eta Gurutze Gorria.

Eskerrik asko Debako Caritaseko boluntarioei, 100 lagunentzako marmitako goxo-goxoa prestatu, eta irribarre handi batekin, kirolariei mimo handiz jaten emateagatik.

Eskerrik beroenak, Evaristo Rodriguez eta Iosu Merinori, kobazuloko zein kanpokaldeko paretetan, soka, arnes eta gainontzekoekin laguntzeagatik. Baita Aitzol, Virginia, Txino, Txelu, Aritz, Asier, Manolo eta aipatu gabe geratu diren gainontzeko boluntarioei ere. Eta nola ez, ezin ahaztu parte hartzaileek igarotako lur sailen jabeai eta baserritarrei: norbaiti eragozpenen bat edo beste sortu badiogu, barkamena eskatu nahiko genioke.

Eta azkenik, eskerrik asko parte hartzaile guzti-guztiei. Bereziki, raid txikian parte hartu zenuten Elgoibarko eta inguruko herrietako familiei.

Datorren urtean ere, nagusientzako nahiz familientzako raidak antolatzeko gogo eta indarrarekin geratu gara. Ez dakigu zein herritako txokoak arakatuko ditugun, baina baliteke berriro Elgoibar eta inguruko mendietara bueltatzea. Eskerrik asko!

Morkaiko Mendizale Elkarteko Raid taldea

EUSKARALDIA

HITZETZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra



CHARLA:

Desde Extremadura al euskera!

JON MAIA



5 de Octubre, miércoles

Aita Agirre kulturgunea

19:00

El bertsolari Jon Maia nos contará a través de sus vivencias el proceso de una familia emigrante en Euskal Herria en torno al idioma, la identidad y el buscar un lugar en el mundo.

Jon Maia es bertsolari pero trabaja también más disciplinas artísticas como son la literatura, la música o el documentalismo. Actualmente está de gira con su último proyecto *Kantu bat gara* (Somos una canción), basado en el libro-disco del mismo nombre.



Elgoibarko Euskaraldia Taldea

Euskara eskolak emango dituzte Mendaron

Euskara eskolek iaz izan zuten harrera eta gurasoetako batzuek agertu duten interesa ikusita, aurten ere Mendaron bertan euskara ikasteko aukera sortu dute Mendaroko Udalak, UEMAK, Euskara Taldeak eta Arno Guraso Elkarteak elkarlanean. Eskolak udaletxean bertan emango dituzte, 14:30etik 16:30erako ordutegian, eta izena eman nahi dutenek zabalik dute horretarako epea. Horretarako ondorengo helbide hauetako batera idatzi behar da: berdintasuna@mendaro.eus edo arnogurasoelkarta@gmail.com.



Iritsi berrientzako AISA euskara ikastaroak, Elgoibarren

Euskarara Hurbiltzen egitasmoaren barruan, AISA 1 ikastaroa antolatu dute Elgoibarko Udalak eta Udal Euskaltegiak herrira etorri berrientzat, euskara ikasteko eta euskal kulturarekin harremanetan jartzeko. Ikastaroa 60 ordukoa izango dela jakinarazi dute, eta berriaz prestatutako ikasmateriala erabiliko dutela irakasleek ikasleekin.

Euskara eskolak Elgoibarko Udal Euskaltegian emango dituzte astearte eta ostegun goizetan (9:30-11:30), urriaren 4tik 9ra bitartean. Ikastaroan parte hartu ahal izateko 16 urte beteta izan beharko dira, eta

interesatuek 25 euro ordaindu beharko dituzte. Izen-ematea irailaren 28ra arte egongo da zabalik Elgoibarko Udal Euskaltegian (Aita Agirre kulturgunea, Aita Agirre plaza, 3. solairua; udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus; 943 742 731).

Aisa I ikastaroan gizartea hobeto ezagutzeko gai motibagarri eta lagungarriak landuko dituztela zehaztu dute euskaltegitik: agurrak, zenbakiak, familia, eskola, garraioa, osasuna, kirola, merkaturak... Gai horietan arreta berezia jarriko zaio hiztegiari eta hizkuntzaren oinarriko ulermenari (kaleko errotuluak, kartelak...).

Buruhandi, erraldoi eta zezenzikleten kalejira bihar, Elgoibarren



Buruhandi, erraldoi eta zezenzikleten kalejira dago iragarrita biharko Elgoibarren. 12:30ean abiatuko dira, ohi legez Kalebarren plazatik, eta herrian gora eta behera ibiliko dira. Lekueder erraldoirik gabeko gunea izango da.

2023rako tasak eta zergak ez igotzea proposatu du Udal Gobernuak

EAJ eta PSE-EEK osatutako Udal Gobernuak 2023rako tasak eta zergak bere horretan mantentzea proposatu dio oposizioari. Atsegin Uzuriaga Ogasun zinegotziak nabarmendu du erabaki honekin herritarrei lagundu nahi dietela. "Ziurgabetasun handiko uneak bizitzen ari gara eta zuzenki eragiten digute egunerokoan, bereziki ekonomikoki. Horrexegatik, prezioen igoerari zein krisi energetikoari aurre egiten laguntzea ahalbidetuko du zerga eta tasen izozteak, herritarrengan eragin ekonomikoa murriztuz". Tasa eta zergak izozteaz gainera, hobariak indartu eta egonkortuko dituztela adierazi dute, bereziki energia eraginkortasunari dagozkienak. Datorren asteazkenean landuko dute gaia Osoko Bilkuran.

'Aldenik Alden' egitasmoa ezagutzeko kale-ekintza urriaren 1ean, Kalebarren plazan



Atxutxiamaikaren *Aldenik Alden* egitasmoa ezagutzera emateko kalera irtengo dira arduradunak urriaren 1ean. Kalebarren plazan bilduko dira egitasmoko erabiltzaileekin, eta proiektua ezagutzera emateaz gain, urriaren 15erako egin asmo duten ekintza elkarlanean diseinatuko dute. Erabiltzaileez gain, haien gurasoei ere aurkeztu nahi diete proiektua, eta horretarako bilera egingo dute irailaren 29an, 18:00etan, Aita Agirre kulturguneko areto nagusian, LH4tik LH6ra arteko gurasoentzat. Azkenik, hilaren 26an ikastetxeetara joango dira jolasorduan, haurrei egitasmo honen berri ematera.

Administrari laguntzaile postua betetzeko deialdia egin du Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak, Lanbiderekin elkarlanean, administrari laguntzaile lanpostua betetzeko deialdia kaleratu du. Lanaldi osoko lanpostua eskaini dute, lau hilabeterako. Lanpostu honetarako izena eman nahi dutenek Elgoibarko Lanbideko egoitzan eman dezakete edota www.lanbide.eus web orrialdean.

Enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2022ko diru-laguntzen barruan, Elgoibarko Udalak 72.856,62 € jaso ditu. Urte honetan zehar beste bost lanpostu ere sortuko ditu: administrari laguntzailearen beste postu bat eta eginkizun askotarako operarioen lau lanpostu. Informazio gehiagarako: www.lanbide.eus

Lagin geoteknikoak hartzen jardun dute asteon Pilarren, zaharren egoitza eta lurpeko aparkalekua egiteko



Elgoibarko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia Errezabal egoitza eraikitzeke eta kudeatzeko lizitazioaren pleguak prestatzen ari dira, eta horren harira, lagin geoteknikoak hartzen aritu dira aste honetan Pilar ikastetxeko orubean, lursaila ezagutzeko eta, horrela, inguruaren datu geotekniko guztiak zehazteko. Arduradunek esan dutenez, lurraren xehetasunak funtsezkoak dira eraikuntzarako, baina, "bereziki, lurpeko aparkalekurako". Lagin hartzeak gaur amaituko dituzte. Errezabal egoitza berriaren obra eta kudeaketa aurten lizitaziora ateratzea aurreikusten du Udalak, 21 milioi eurotik gorako eraikuntza-aurrekontuarekin. Finkaren azalera osoa 7.500 metro koadrokoa da, eta ekipamendu-eraikin berria ezarriko den zatiak 4.250 metro koadroko azalera du. Aparkalekuari dagozkion obrak Elgoibarko Udalaren kontura egingo dira, haren ustiapena Udalaren eskumen eskusibokoa izango delako. Era berean, Urazandi auzorako oinezkoentzako bigarren ibilbide irisgarria izango den igogailu publikoaren lehen zatia ere garatuko dute.

Usuatik Maltzagara arteko ibai tartea garbituko dute bihar

Baso Biziak plataformak ibai eta ingurumen garbiketa egun bateratua antolatu dute biharko, eta ekimenean parte hartzeko deia egin diete herritarrei. Besteak beste, Eibarren, Soraluzen, Azpeitia-Azkoitian, Elorrio-Atxondon eta Elgoibarren egingo dituzte ibai garbitzeko saioak. Elgoibarren, Usuako parkean bilduko dira 9:30ean, eta Usua ingurutik Maltzaga alderako zatia garbituko dute. Antolatzaileek eskatu dute ibaian sartzeko oinetako egokiak eramateko. Izena emateko: info@elgoibarkobasobiziak.org / 669 678 003

Udalak bertan behera laga du pintxo lehiaketa partaidetza txikiagatik

Urriaren 19tik 21era egitekoak ziren Elgoibarko pintxo lehiaketa bertan behera gelditu dela jakinarazi du Udalak, partehartzea baxua izan delako. Izena emateko epea amaitzean, bost ostalari baino ez zeuden izena emanda, eta lehiaketa antolatzeke partaidetza oso baxua iruditu zitzaion Udalari. 2019an egin zuten azkenengoz pintxo lehiaketa, eta 23 ostalarik hartu zuten parte. 2017an eta 2018an 26 ostalarik aurkeztu zituzten pintxoak lehiaketara. Ostalariekin batera ekimen ezberdinak aurrera eramateko pausoak ematen jarraituko duela adierazi dute udal arduradunek, honelakoak bertan behera lagata, "herriak galtzen duelako".

Ostalariak haserre

Aizu Ostalarien Elkarteko presidente Manu Reyk azaldu ditu pintxo lehiaketan izena ez ematearen arrazoiak. Hasteko, esan du Udaleko inor ez dela ostalariekin harremanetan jarri lehiaketaren nondik norakoak zehazteko: "Ez digute galdetu data ondo datorkigun, pintxoaren prezioa egoki ikusten dugun, zenbat egunez izango den lehiaketa... Ezer ere ez. Kontzertu bat antolatzen duenak musika taldearekin hitz egin beharko du aurrez, ezta? bestela posible da antolatzaileak aukeratutako datan ezin izatea, ordainduko zaionarekin ados ez egotea... ba gure kasua berdina da". Reyk azaldu duenez, irailaren 15erako eskatu zieten pintxoak aurkezteko, sanbartolomeak amaitu berrikan ia-



ia, eta lehiaketa baterako pintxoak prestatzeak denbora gehiago eskatzen duela uste du. Horrez gain, pandemiaren ondoren jendearen kontsumo ohiturak aldatu egin direla dio, eta orain gehienbat terrazan kontsumitzen dela, tabernaz-taberna baino gehiago. Era berean, ostalari askok lantaldea murriztu behar izan duela ere nabarmendu du, eta ondorioz askok ez daukatela pintxo lehiaketa bati aurre egiteko baliabiderik. Udalak pintxoari jarri dion salneurriarekin ere ez zeudela konforme gaineratu du: "Izenemate epea amaitu ondoren deitu zidaten galdetzeko ea zergatik ez dugun izena eman, baina hori aurrez egin behar zuten, lehiaketa antolatu aurretik bildu behar ginen. Esan didatenez orain egingo omen dugu bileraren bat, eta gu behintzat, hitz egiteko prest gaude". Aizu Elkartean 28 ostalari daude.

Elgoibarko LGTBI+ diagnosis egiteko testigantzak behar dituzte

Elgoibarko Udalak eta Lilak Elgoibarko LGTB+ diagnosis egingo dute Hiruki Larroxa elkartearekin elkarlanean, eta horretarako, testigantzak behar dituzte. Lehen fasean zortzi bat herritarren testigantzak jaso nahi dituzte, ondoren, haien zabalkundea eginez, indarkeria matxistarekiko eta sexu aniztasunarekiko Elgoibarko herritarren jarrerak, ezagutzak eta sensibilizazioa ezagutzera emateko. Diagnosis zertan datzan herritarrei aurkezteko, saio ireki bat egingo dute urriaren 6an, osteguna, 18:30ean, Lilan. Testigantzak emateko prest daudenek elgoibargtbdagnostikoa@gmail.com helbidera idatzi behar dute urriaren 16a baino lehen.

Urriaren 4an hasiko da altzariak zaharberritzeko eta birziklatzeko ikastaroa

Eskuz elkarteak antolatuta, urriaren 4an hasiko da altzariak zaharberritzeko eta birziklatzeko ikastaroa, eta dagoeneko eman daiteke izena. Interesatuak 615 764 337 (Nieves) telefonora deitu dezakete informazio gehiago eskatzeko edo izena emateko. Ikastaroak martitzen eta eguenetan izango dira, 15:00etatik 17:00etara edo 18:00etatik 20:00etara.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus ☎ 943 744 112 📞 688 634 044



Sigmako industrialdean zabor edukiontziak falta dira:


"Sigmako industrialdean enpresa asko dago, eta sortzen dugun zabor guztia kudeatzeko edukiontzi gutxi daude. Errefusarenak bakarrik daude, eta ez dago ontzien edukiontzi horirik. Enpresei papera botatzeko edukiontziak jartzen dizkigute, baina gurea lapurtu egin ziguten. Hilabeteak pasatu dira, eta oraindik

ez digute edukiontzi berria ekarri. Jatetxeak ere badaude industrialdean, eta organikoaren edukiontziak gainezka eginda egoten da, astean bi aldiz bakarrik husten dutelako. Azkenaldian arratoiak ere ugaritu dira inguruan. Erakundeetatik birziklatzeko eskatzen digute, baina gero ez dute erraztasunik ematen. Zabor tasa gora eta edukiontzi kopurua behera doaz gurean".



Bolatokiko komunak zikin-zikin egoten dira:

"Honela aurkitu nituen bolatokiko komunak. Dena zikinkeriz beteta zegoen, eta eman zidan nazkarekin, buelta eman nuen. Sinestezina da zeinen zikinak garen. Herri honetan komun publikoen egoera tamalgarria da".



Txakur-kakak jaso egin behar dira:

"Elgoibarko Udalak txakur kakak jasotzeko kanpaina egin zuen, eta horren barruan kartelak jarri zituzten herriko hainbat gunetan. Hala ere, txakur-jabe askok ez dituzte kakak batzen, eta herria zikin-zikin dago. Kartel horiek

kontrako efektua egin dutela ere iruditzen zait azkenaldian. Nire ustez, beste herri batzuetan bezala, Udalak zabor poltsa biodegradableak banatu beharko lituzte txakur-jabeen artean, eta agian erraztasunak emanez jendea gehiago inplikatu da kakak batzen".



Txalo bat Ikastola ondoan egin duten parkeagatik:

"Guraso asko umeekin geratzen dira Ikastola inguruan arratsaldeetan, eta hango berdegunean egin duten parkea oso ondo geratu da. Dena dela, iturri bat falta da gune horretan".



1937AN FRANKISTEK ELGOIBARTIK ETA MENDAROTIK KANPORATU ZITUZTEN EMAKUMEAK ETA HAURRAK OMENDUKO DITUZTE BIHAR, KOLUNBARIOAN



Frankistek Elgoibartik kanporatu zituzten hainbat emakume eta ume. Goian, Dominga Zendoia, Candida Arregi, Irene Okamika, Teresa Unzilla eta Angelita Azkue. Behean: Joseba, Sabin, Iker eta Xabier Argarate Untzilla anaiak, Bilboko Carlton hotelean egindako argazkian.

Aita, senar, seme edo nebaren bat errepublikarren kontrolpeko lurretan aurrera eginda izateagatik, ehunka emakume bota zituzten Gipuzkoako hainbat herritatik frankistek, 1937an, umeekin batera. Gerra denetan gertatu ohi denez, emakumeak eta haurrak izan ziren jazarpen makinan gogorren jo zuten taldeetako bat 36ko gerran ere. Gipuzkoako hamalau herritan izan ziren kanporaketak, tartean Elgoibarren eta Mendaron. Zumaia izan zen denetan herririk zigortuena.

Zumaiako Erkibe Kultur Elkartearen arabera, 256 emakume bota zituzten 1937ko otsailaren 13an eta 14an, eta seme-alabak haiekin. Gure inguruan ere erabili zuten, baina, matxinatuek errepresio bide hori. Datu zehatza lortzea zaila bada ere, uste da 90 bat izan zirela bi herriotan kanporatutakoak eta jazarri, errepresaliatu eta erbestera behartu zituzten emakume eta haur haiek guztiak omenduko ditu bihar Elgoibar1936 taldeak Elgoibarko Kolunbarioan (Olasoko hilerria). 12:00etan hasiko da ekitaldia.

1937AN KANPORATUTAKO ELGOIBARTARRAK

Otsailaren 9an kanporatuak.....

- Dominga Zendoia
- Angeles Azkue
- Alberta Etxaniz Arrieta eta haren alaba: Karmele Gabilondo (2 urte)
- Irene Okamika Lizundia
- Candida Arregi

- Teresa Unzilla (Lau semerekin: Joseba (7), Sabin (5), Iker eta Xabier Argarate Untzilla. (4 urteko bikiak)
- Felisa Unzueta Arriola eta haren seme-alabak: Antonio (8) eta Maria Cristina (6)

Otsailaren 10ean kanporatuak

■ Jesusa Arrien Bilbao (37) eta haren bi alabak: Miren eta Juanita Landaluze (10 urteko bikiak).

■ Concepcion Uribetxeberria (36) eta haren seme Jaime eta Fernando Azpiazu (7 eta 3).

■ Pura Salaberria (40) eta haren alaba Catalina Urtaza Salaberria (12)

■ Maria Koro Arrizabalaga (36) eta haren alaba Trinidad eta Maria Teresa Matas Koro (12 eta 10).

■ Isidora Ondarza Gorriti (38).

■ Josefa Inazia Manzidor Aristi (32 urte) eta haren semea: Antonio Irigoien (urtebete)

■ Eugenia Zubiaurre Zabala (42) eta haren se-

meak: Eduardo, Jose Maria eta Jesus Elortza anaiak (15 , 11 urte eta urtebete).

■ Beatriz Martinez Gomez (24) eta haren alaba Maria Angeles Ondarza Martinez (6)

■ Juana Gisasola Alberdi (40)

Bezperan Zestoatik kanporatu zituzten hamaika lagunekin batera egin zuten Eibarrerako bidea, oinez. Zestoarrak autotan iritsi ziren Elgoibarrera. Maltzagara gudariak irten zitzaizkien eta haiek lagunduta iritsi ziren Eibarrera, *Euzkadi* egunkarian otsailaren 11ko alean jasotakoaren arabera.

Otsailaren 11n kanporatutakoak. 'Maltzaga-Eibar-Bilbo' bidea hartu zuten...

■ Maria Jauregi Ollakiegi (26) eta 3 urteko semea.

■ Teresa Untzeta (43)

■ Rufina Urreta Garate (29) eta seme-alabak: Blanki Urreta (7) eta Fernando Urreta (5)

■ Pepita Untzeta (32) eta 6,5 eta urtebeteko hiru alaba.

■ Paulina Jubita (38) eta haren seme Juan eta Ignacio (11 eta 10).

■ Higinia Agirrezabala (32) eta haren 6 urteko alaba Aurea eta 2 urteko seme Victor.

■ Leonor Olaizola (30)

■ Dominga Lariz (55)

■ Benita Bernedo (19) eta seme Koldobika Beristain (5 hilabete)

■ Justa Garitzelazia Sarriugarte (30) eta haren seme-alabak: Jon, Laura eta Jose Maria Etxabe.

Agirietan ez dago jasota zein egunetan kanporatu zuten

■ Josefa Urreta Garate. Fulgencio Barrutia senarra Markinan Ordena Publikoko buruorde zelako kanporatu zuten, hiru alabekin batera: Belene Barrutia Urreta (9 hilabete), Consuelo Barrutia Urreta (4) eta Esther Barrutia Urrutia (6).

Otsailaren 15ean kanporatua

■ Amalia Barrutia Beitia (58)



Denboraldei berriko manta, edredoi, nordiko eta neguko ohe-maindireak dendan!

Bisita gaitzazu!



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

KANPORATUTAKO MENDAROARRAK. 1937KO OTSAILAREN 15EAN

- Pepita Zabala Arriola (23 urte) eta haren alaba Aurora Ozkorta Zabala (2 urte térdi)
- Paquita Mardaras Areta (25)
- Gregoria Barrenetxea Areta (38) eta haren seme-alabak: Manuel, Antonio, Maria eta Jel Iriondo Barrenetxea (14, 12, 10 eta 8 urte)
- Juana Barrenetxea Areta (32)
- Elezar Lonbide Barrenetxea (8)
- Nerea Lonbide Barrenetxea (6)
- Xeber Lonbide Barrenetxea (2)
- Clara Etxebarria Arrillaga (26) eta haren seme Jose Luis Azpiazu Etxebarria (10 hila-bete)

- Maria Landa Iriondo (27)
- Teresa Etxabe Arrona (29) eta haren seme-alabak: Manuel eta Dolores Iriondo Etxabe (8), Jose (6), Miguel (4) eta Antonia (2)
- Magdalena Etxebarria Arrillaga (35)
- Maria Etxebarria Arrillaga (18)
- Angelita Etxebarria Arrillaga (19)
- Josefa Iriondo Bergaretxe (35)
- Santos Arriola Iriondo (14)
- Josefa Mugertza Agirregomezkorta (29) eta haren alaba Libe Iriondo Mugertza (3/5 hila-bete)
- Maria Iriondo Txurruka (19)

* *Iturria: Sabino Arana Fundazioa, 'Euzkadi' eta 'Eusko Deya' egunkariak eta Elgoibar1936 taldea.*

36ko Gerran Zirardamendiko frontean hildakoak omendu ditu Elgoibarko Udalak

Urteroko legean, 36ko gerran Zirardamendiko frontean hil ziren soldaduak omendu zituen Elgoibarko Udalak, domekan. 2013an antolatu zuten estreinakoz omenaldi hau, eta geroztik, irailaren 21aren bueltan egin izan da beti, egun horretan sartu zirelako tropa frankistak Elgoibarren, 1936an. Bi helburu ditu omenaldiak: batetik, soldadu haiek egin zuten sakrifizioa aitortu, eta bestetik, memoria historikoa egitea, bizikidetzarako eta adiskidetzarako bide gisa.

1936ko irailaren 25an Arana Goiri batailoiko hamalau euskal gudari hil zituzten Zirardamendiko frontean, Mola jeneralaren tropen kontrako borrokan: Jose Txintxurreta, Paulino Beraza, Juan Zabala, Blas Larrazeleta, Ambrosio Etxebarria, Felipe Elorriaga, Sabin Atutxa, Emeterio Llavori, Eusebio Gaubeka, Juan Agirre, Imanol Etxebarria, Marcelino Gandarias, Miguel Palacio eta Felix Arbulu.



Iñaki Goigana historialaria azalpenak ematen, domekan.

Elgoibarko memoria historikoa berreskuratzeko herritarrek sortutako Elgoibar1936 taldeak, Ahaztuen Oroimena Markinaldeko Frentea 1936 taldeak eta Aranzadik elkarlanean atera zituzten lurpetik 2012. urtean 1936ko gerran Frankoren tropek fusilatu eta auzokoek Zirardamendin ehortzitako lau gudariaren arrastoak.

Zortzi irudiren artetik aukeratuko dute Santa Ana kaleko horman margotuko dutena

Santa Ana kaleko ertz batean dagoen etxebizitzako paretean horma irudi bat margotzeko asmoa du Elgoibarko Udalak herriko txoko hori atsegina egiteko, eta bertan irudikatuko duten artelana herritarrek aukeratuko dute. Parte-hartze prozesua jarri dute martxan, eta irailaren 30era arteko epea dago botoa emateko. Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lana egiten duten bertako zein kanpoko pertsonak izango dute bozkatzeko aukera, baina parte hartzeko ezinbestean 16 urte beteta izan behar dira. Parte hartzen duten guztien artean Elgoibarko saltokietan gastatzeko hiru erosketa-bono zozkatuko dituzte. Interesatuak

udaletxean, liburutegian, kiroldegian eta Aita Agirren bozkatu ahal izango dute aurrez aurre, eta *elgoibar.eus* webgunean jarri duten formularioa beteta online bozkatzeko aukera ere badago.

Zortzi lan aukeran

Lau artista euskaldunek hartu dute parte horma irudirako diseinuak egiten, eta bakoitzak bi lan aurkeztu ditu, beraz, herritarrek zortzi lan horien artean aukeratu beharko dute gustukuena: Sortwo, Pablo Astrain, Maialen Arocena eta Jabier Rodriguez dira lau artistak.



SOTOKO HOTSAK ETA GARAROCK, MUSIKA ESKAINTZA OSO BAT ASTEBURURAKO

✍️ Ainara Argoitia



Sotoko Hotsak eta Gararock. Horra astebururako plan oso bat, bertatik bertara. Horra bi jaialdi eskaintza bakar batean. Sotoko Hotsak ekimenaren barruan, Sinuöse kultur elkarteok Rukula eta Elle Belga taldeak ekarriko dituzte gaur, barikua, Elgoibarrera. Bihar, berriz, Mendaroko Garagartza auzoa hartuko du musikak, rockak. Maraca Diablo etxeko taldearekin batera, musika eszenan ezagunak diren beste lau taldek kontzertuak emango dituzte. Musika jaialdiari, baina, 'Kontukontzertua' ikuskizunarekin emango diote hasiera, 17:30ean, musika eskolako terrazan (euria egingo balu, San Agustin kulturgunera aldatuko lukete lekuz).

Kartel ikusgarriak sortu dituzte Sinuösek eta Gararock Taldeak, gaur-biharrerako antolatu duten musika eskaintza oparoa iragartzeko. Iñaki Ovejerok diseinatu du ohi legez Sotoko Hotsak-en kartela, eta Miren Vivesen obra da bigarrena. Jaialdiak eurek ohiko formatoan datoz, baina badira aldaketa batzuk. Sinuösek gaurko lotu duen lehen kontzertua, Rukularena, Kultur Etxe atzeko parkean izango da, Sotoan

beharrean, 20:00etan (euria eginez gero, Aita Agirreko arkupeetan). Bigarrena, Elle Belga taldearena, berriz, Sotoan izango da, 23:00etatik aurrera, eta 5 euroan salduko dituzte sarrerak. Gararockek, berriz, urteroko jai-giroa sortuko du Mendaron. Euria dago iragarrita, eta egingo balu, terrazan izatekoak diren kontzertuak San Agustin kulturgunera aldatuko dituztela aurreratu dute antolatzaileek.

RUKULA

Elgoibarren, 20:00etan,

Kultur Etxe atzeko plazan, Udaltzaingoarean aurrean




Jon Agirianok (gitarra), Aitor Pagolak (gitarra), Martxel Arkarazok (baxua) eta Koldo Otamendik (bateria) osatzen dute taldea gaur [Beñat Irazusta ordezkatzera sartu zen Agiriano]. 2015ean sortu zuten taldea, Usurbilen, eta 2016an argitaratu zuten lehen diskoa, taldearen izen bera duena. Sei kantuko diskoa izan zen. Gerora etorri zen, *Hazi Beltzak*, Rukularen bigarren lana. Andoaingo Garate Studioetan grabatu zuten Martxel Arkarazo soinu teknikari eta taldekidearen aginduetara. Zortzi kantuko lana izan zen bigarren hura. Talde instrumentala da Rukula. "Hitzik erabili gabe ere, musikarekin eta jarrerarekin, berdin-berdin transmititu daitekeela sinetsita gaude". Rock instrumentala egiten dute oinarrian, baina ohiko eritmoez gain, eritmo tribalak eta dantzagarriak ere jotzen dituzte. Jotzen ari direla dantza egiten saiatzen dira eta publikoa dantzarazten.

ELLE BELGA

Elgoibarren, 23:00etan,

Kultur Etxeko Sotoan



Fany Alvarezek eta Jose Luis Garciak (Xixongo musika eszenan ezagunak ziren Manta Ray eta Viva las Vegas taldeetako gitarra jole eta ahotsa izandakoa) bikoak osatzen du Elle Belga. 2009an. urtean argitaratu zuten euren lehen lana: *1971*, eta geroztik beste hiru argitaratu dituzte: *Refugio* (2013), *Euforia* (2016) eta *Simetria* (2019), azken hori 2020an. Intimitatekin sortzen dute eta ukitu anglosaxoia nabarmena da haien emarian. Lurrari eta herri kantei oso lotutako proiektua da haiena. "Abesti zirragarriak, sakonak eta bareak" sortzen dituzte, kritikaren arabera, eta inguru gertuenarekin eta sentimendu unibertsalarekin lotzen dute entzulea Elle Belgaren melodia eta hitzek. Amoranterekin oholtza partekatutakoa da Elle Belga, eta haren herrian jotzea ohore bat dela zabaldu du taldeak Facebookeko bere orrialdean.

LAS FURIAS

Mendaron, Garagartzako plazan, 18:30ean

Barbarella Guitarra Lanzallamas eta Onne Wan Bajo Dinamita izenez ezagutzera eman diren bi emakume musikaririk sortu zuten taldea 2007. urtean, elkarrekin zuten beste proiektua, *Las Perras del Infierno*, desegin ondoren, baina gerora Mary Katherine Hogan bateria jolea batu zitzairen. Garage punka eta musika psikodelikoa egiten dute, eta hiru disko dituzte argitara emanda: *Señorita Rock'n Roll*, *Sudor de Hembra* eta *Disco dinamita*.



INOREN ERO NI

Mendaron, 19:30ean, musika eskolako terrazan

Bap! taldean aritutako hiru musikaririk (Eneko Abrego *Okenek*, Xabier Olazabalek eta Mikel Abregok) eta besteak beste Purr eta Anari taldeetan ibilitako Borja Iglesias gitarristak sortu zuten Inoren ero ni taldea 2002an, Andoainen. 2003an, taldearen izen bera zuen lehen diskoa grabatu zuten Garate Estudios-en Kaki Arkarazoren gidaritzapean, eta geroztik beste lau disko argitaratu dituzte. Taldearen estudioko azken emaitza *Il cercatore di perle* (Bidehuts, 2019) diskoa da, lau kantuz osaturikoa. Gaur egun Okene Abrego (ahotsa), Borja Iglesias (gitarra), Mariano Hurtado (baxua)



eta Iñaki Guantxe (bateria) musikariek osatzen dute taldea. Hasieran post-hardcorea izan bazuten ere oinarrian, gaur gero eta free-jazzagoak dira.

MARACA DIABLO

Mendaron, Garagartzako plazan, 20:45ean

Ina Iriondo musikari mendaroarraren proiektua da sortzez Maraca Diablo, Ana Perez bikotekidearekin batera 2003an sortutako Munlet proiektuarekin paraleloan ibili duena, baina pandemian talde-proiektua bihurtu zena. Josu Iriondok (baxua), Asier Etxanizek (gitarra eta ahotsa), Ana Perezek (ahotsa eta sintetizadorea) eta Rafa Furnierrek (bateria eta perkusioa) osatzen dute gaur Maraca Diablo, Inaz gain (ahotsa, gitarra eta teklatuak). Bakarkako bi lan (*Hail Zigurat!* eta *El Regreso del niño*) ditu, baina apirilean argitaratu zuten taldean osatutako lehen lana. Berezia da azkena, taldekideen estiloek baldintzatutakoa, baina aldi berean, antzik ez duena



aurrez bakoitzak bere aldetik egindakoarekin. Zuzenekoetan defenditzeko lana dela esana dute, eta hortara datoz.

VULK

Mendaron, Garagartzako plazan, 23:00etan

Andoni de La Cruzek, Alberto Egiluzek, Julen Alberdik eta Jangitz Larrañagak osatzen dute gaur egun Vulk. 2014. urtean sortu zuten taldea eta 2015an eman zuten lehenengo lan txikia argitara: *Zaldia Burning*. 2017an, berriz, *Beat Kamerlanden* lehen lan luzea grabatu zuten. Gerora beste bi eman dituzte argitara: 2018an, *Ground for Dogs* eta 2022an *Vulk ez da*. Azkeneko lan horrekin batera, izen bereko dokumentala ere grabatu zuten Zinebi jaialdirako. Institute, King Crimson, Television, This Heat, The Fall, edo Uranium Club bezalako taldeetatik edan dute gaur direna izateko:



Rock punka egiten duten taldean artean, itzal handikoenetako bat da Vulk, Euskal Herrian eta inguruetan.

📷 Alessandra de Schmidt

LIE DETECTORS

Mendaron, Garagartzako plazan, 00:30ean

Nuevo Catecismo Catolico, Muturbeltz, Dirty Pink Ladies eta beste talde ezagun batzuetan ibilitako musikariek osatzen dute Lie Detectors taldea: Txema Babon (ahotsa eta marakak), Urko Roa (bateria), Eneko Etxeandia (gitarra eta koroak), Aitor Txiki (baxua eta koroak) eta Alvaro Turrio (teklatua). 60eko eta 70eko hamarkadetako rock giroak dituzte erreferentzia nagusizat eta gazteleraz kantatzen dute. "Punketik eta rocketik gatoz nagusiki, baina mugitzen gaituen guztiaren zertzeladak daude gure musikan, eta ez dugu ildo estilistikorik ezertarako", diote euren buruaz. Hainbat lan txiki kaleratu



dituzte urte hauetan guztietan, eta 2020. urtean grabatu zuten lehen disko luzea (*Long Play*) Garate estudioan, Kaki Arkarazoren gidaritzapean.

'KONTUKONTZERTUA'

Mendaron. Garagartzan, musika eskolako terrazan, 17:30ean.

Yanire Sagredo

Mendaroko kultur eskaintza aberastu eta herritarrei herrian bertan musika emanaldi berezietz gozatzeko aukera emateko sortu zuten Gararock, eta sortzetik bertatik ezaugarri batek bereizi ditu: familia osoak batzeko eskaintza prestatu dute beti antolatzaileek. Aurten, Naita produkzioak taldearen *Kontukontzertua* ikuskizuna lotu dute arratsalderako, kontzertuen atariko gisa. Musika eskolako terrazan emango dute, eta euria egingo balu, San Agustin kulturgunean.



Musika, ipuinak eta istorioak inspiraziotzat hartuta sortutako ikuskizuna da *Kontukontzertua*, Mariano Hurtado musikariak eta Nerea Ariznabarreta ipuin-kontalari, antzezle eta klownak sortutakoa. Hurtadok musika-instrumentu sorta zabala igo ohi du oholtzara: kontrabaxua, ukelelea, txirula indiarra, darbuka melodikoa, beste zenbait "katxibatze", bai eta maleta batekin eta lata batzuekin egindako bateria ere. Ez da bakarrik ariko, hala ere, oholtzan.

Nerea Ariznabarretak jarriko ditu ahotsa eta mugimendua, eta lagunduko dio ukelelearekin eta jostailuzko pianotxo batekin. Istorioak eta musika nahastuko dituzte ikuskizunean zehar eta parte hartzera gonbidatuko dute publikoa. Abesti guztiak eurek sortutakoak dira, eta ipuinak ere bai, hein handi batean. "Ipuinak ez dakit ezagunak diren edo ez, baina kontatzen ditugun ipuinak ez dira behintzat ipuin tradizionalak", esana du Ariznabarretak. Inprobisaziorako tartea ere handia da *Kontukontzertu* ikuskizunean.

50 URTE... ETA SEGI AURRERA

✍️👤 Ainhoa Andonegi

Elgoibarko Dultzaineroen Taldeak 50 urte bete ditu aurten, eta domekan egin zuten urrezko ezteiak ospatzeko ospakizun handia. Dultzaina Eguna ospatu zuten, eta herriko hainbat txoko dultzaina doinuz jantzi zituzten. Txomin Mujika, Rikardo Gorriti eta Aitor Nova dultzaineroek lagun artean ospatu zuten eguna gainera, Iruñeko, Bilboko, Arrasateko, Bergarako, Zangozako, Baigorriko eta Artaxoako dultzaineroekin. Herritar ugari bildu zen Kalegoen plazan, eta dultzaineroek eskerrak eman zizkieten gutzietei. Victor Zubiaurre *Balle* ere gogoan izan zuten. Argazki gehiago eta bideoa: barren.eus





San Migel jaiak ospatuko dituzte Aiastian, eta bihar, autobus zerbitzua egongo da bertaratzeko



Asteburuan ospatuko dituzte San Migel jaiak Aiastian, eta egitaraua bete-betea dator. Bihar hasiko dira, eta besteak beste umeentzako ekitaldiak izango dira: umeentzako jolasak, bazkaria eta puzgarriak. Haritz dantza taldearen erakustaldia eta bolo txapelketa ere ez dira faltako, eta gauerako erronomia antolatu dute, Fan&Go taldearekin. Domekan berriz, artzai txakur txapelketa eta idi demak egingo dituzte. San Migel Egunean, irailaren 29an, amaituko dira auzoko

jaiak, eta egun horretan meza, trikitilariak eta pilota partidak egongo dira.

Autobus zerbitzua zapatuan

Aurtengo berrikuntzen artean autobus zerbitzua nabarmendu behar da. Bihar Aiastiara igotzeko autobusa jarriko dute, 19:00etatik 5:00ak arte. Txarridunako errotondatik irtengo da autobusa, eta joan-etorri etengabea ibiliko da tarte horretan.

Euskal dantzak ikasteko izena emateko epea zabaldu dute Mendaron



Aurten ere izango da Mendaron euskal dantzak ikasteko aukera. Debako Gure Kai taldeko Amaia Ajuriagoikoa eta Elgoibarko Haritz Euskal Dantzari Taldeko Imanol Arantzamendi izango dituzte dantza irakasle, eta martitzenetan izango dira eskolak, Azpilgoetako Kultur Etxean. Interesatuak zabalik dute izena emateko epea. Horretarako, bi telefono-zenbaki jarri dituzte antolatzaileek herritarren eskura: 688 690 094 (Dorleta) eta 626 531 294 (Eider). Dantza eskolak urriaren 4an hasiko dira. Momentuan jakinarazi dute helduen taldeak 19:00etatik 20:00etarako ordutegia izango duela. Haurrak bi taldetan banatuko dituzte: txikiak 18:00etatik 19:00etara izango dute eskola, eta gainerakoek, 17:00etatik 18:00etara.

AEK Euskaltegiaren izena emateko epea zabalik dago

2022-23 ikasturterako matrikulazio epea zabaldu du Elgoibarko AEK Euskaltegiak, eta interesatuak irailaren 27ra arteko epea dute izena emateko. Euskaraz ez dakitenentzako edota euskara apur bat jakinda gehiago ikasi nahi dutenentzako eskolak egongo dira batetik, eta bestetik, Administrazioarako, Irakaskuntzarako eta Osakidetzarako tituluak eta HABEren A1, A2, 1., 2. eta 3. mailak prestatzeko eskolak ere emango dituzte. Gurasoek, langabetuek, ikasleek eta pentsiodunek matrikularen erdia ordainduko dute, eta dagozkien baldintzak betetzen dituzten guztiak beka sisteman sartuko dira, Udalaren dirulaguntzari esker. Informazio gehiagorako AEK Euskaltegiara jo behar da. Gabriel Kurutzelaegiko 10. zenbakian dute bulegoa (Toletxeko tren geltokiaren beste aldean). Telefonoz ere deitu daiteke 607 601 423 zenbakira edo **elgoibar@aekeus** helbidera idatzi daiteke.

Aurtengo sanbartolomeak "inoizko parte-hartzaileenak eta jendetsuenak" izan direla nabarmendu du Udalak



Elgoibarko Udalak San Bartolome jaien balorazio "oso positiboa" egin du. Arduradunek esan dutenez, "inoizko jairik parte-hartzaileenak eta jendetsuenak" izan dira aurtengoak. Zazpi egunez jai-giroa nagusitu dela esan dute, eta nabarmendu dute ez dela azpimarratzeko moduko gertakari negatiborik izan. "Oro har giro ona, errespetua, bizikidetzeta ona, harmonia eta tolerantzia nagusitu dira. Ez da istilu, ez ezbehar larririk jazo. Uda honetan Euskal Herriko herri ugarian emandako emakumeen aurkako ziztadarik ere ez da egon". Esku-hartze gehienak honakoekin erlazionatuak izan dira: zauriturik gabeko istripuak (1), poltsak eta telefono lapurretak (11 guztira), kalte eta galtze desberdinengatik jarritako salaketak (2), galdutako gauzak (11), gazte lokaletan izandako zaraten kontrako kexak (2), kaleko istiluak eta errieta txikiak (8), kexak musika eta zaratagatik (7) eta sokamuturrak eragindako kalteak (3).

Elgoibarko Udalak eta Lila Emakumeen Etxeak festak emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe gozatzeko gune bihurtzeko konpromiso partekatua berretsi zuten eta herriko ostalarien laguntzarekin, *Jaietan ere, Indarkeria Matxistari EZ!* kanpaina abiatu zuten, jaiak berdintasunean eta eraso matxistarik gabe igarotzeko. Era berean, aurtengoa, estreinakoz, gaueko taxi zerbitzua eskaini dute, doan, herri barruko bidaiantzeko. Arduradunen esanetan 211 herritarrek erabili dute, eta horietako %75

30 urtetik beherakoak izan dira, eta %63, emakumezkoak. Orokorrean, Berdintasun Sailak jaien balorazio ona egin du. Udaltzaingotik eta Gizarte Zerbitzuetatik jakinarazi dutenez ez da indarkeria matxista kasurik salatu aurtengo jaietan eta ez da arretarako protokolorik martxan jarri udal mailan. Hala ere, zehaztu dute horrek ez duela esan nahi indarkeria kasurik egon ez denik, baizik eta salaketarik ez dela izan, eta horregatik dei egin diete herritarrei indarkeria matxistaren existentziaz jabetzera eta erantzukizunaz jokatzera.

Udalak alkohol eta bestelako drogen erabilerearen prebentzio programak ere jarri zituen martxan jaietan. Abuztuaren 23an eta 26an drogen inguruko informazio eta testing postuak jarri zituzten: 23ko gauean, 255 pertsonari eman zieten informazioa, eta gazteen egunean, 251ri. Alkoholimetriari dagokionez orotara 119 parte hartzaile izan ziren (80 gizon eta 39 emakume). Era berean, abuztuaren 23an, Ai Laket! Elkarteko kideak gazteek botiltzarra egiten ohi duten tokietara hurbildu ziren prebentzio, kontzientziazio, eta alkohol kontsumoaren aukerak sustatzeko aholkuak eskaintzera. Guztira, 12 eta 30 urte bitarteko 453 pertsonarengana hurbildu ziren.

Bestela, jendea jaietarako gogoz ibili dela nabarmendu dute Udaletik, eta ekintzetan jende asko ibili dela, Elgoibarkoak zein inguruko herrietatik etorritakoak.

Joxe Azurmendiren pentsamenduaz jardungo dute eguaztenean Haritz Azurmendik eta Lorea Agirrek

Hasier Etxeberria zenaren oroimenez *Biba Hasier!* ekimena antolatu du Elgoibarko Izarrak, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin, eta horren barruan, *Joxe Azurmendi: Herria, hizkuntza, kultura* solasaldia egingo dute datorren eguaztenean. Joxe Azurmendi antropologo eta filosofoaren obra eta pentsamendua oinarri hartuta, Haritz Azurmendi eta Lorea Agirreren arteko elkarrizketa izango da. Haritz Azurmendi Arrue, filosofoa eta Joxe Azurmendiren gaineko doktore tesiaren egilea da. Lorea Agirre Dorronsoro, berriz, *Jakin* aldizkariko zuzendaria. Joxe Azurmendi filosofoa Euskal Herriko saiakeragile oparoenetakoa da, oparoena ez bada. Dena egiteke eta herri bat birpentsatzeko zegoen garaian hasi zen Azurmendi



idatziak plazaratzen eta horretan dihardu gaur egun ere. Filosoifiaren auzi eta ertz unibertsal ugari landu ditu, beti antidogmatiko eta kritikoa, eta beti eraikitzaile. Baina bere ezaugarri garrantzitsuenak filosofia guretik landu izana da, hau da, gaur egungo munduan euskaldun izatearen kondiziotik pentsatu izana mundua.

Ipuinak aukeratzen ikasteko tailerra emango dute Elgoibarko liburutegian

Haur Hezkuntzako umeen gurasoentzako eta hezitzaileentzako tailerra antolatu du Elgoibarko Udal Liburutegiak, ipuinak modu egokian aukeratzen ikasteko. Adituen arabera, ipuinak oso tresna garrantzitsuak dira umeen hasierako urteetan, bizitzan garrantzitsuak diren bizipenak modu seguruan esperimintatzeko eta bizitzarako garrantzitsuak diren erremintak eskuratzeko giltzak ematen dizkietelako. Ipuinak sinbolismoz eta jakintzaz beteta daude, eta seme-alabekin bestelako lanketa batzuk egiteko aukera eskaintzen dute.

Ipuinen alorrean aditua den Dorleta Kortazarrek emango du tailerra. Tailer praktikoa izango da, eta parte-hartzaileek haur zein gazte literaturako materiala ezagutzeko aukera



izango dute, eta ipuinak aukeratzeko irizpideak ere landuko dituzte. Tailerrak bi saiotan banatu dute: urriaren 3an eta 13an izango dira saioak, 18:00etatik 20:00etara. Izena eman behar da, honako bide hauek erabilita: 943 743 525 telefonoan / 688 710 138 whatsappen / liburutegia@elgoibar.eus helbidean.

'Arnasetik' bideo lehiaketa antolatu dute Mendaron

Arnasetik bideo-sormen lehiaketa antolatu du Arnasa Gara ekimenak LH5etik DBH4ra arteko ikasleentzat eta bat egin du Mendaroko Udalak. Lehiaketaren helburua euskararen arnagune izendatutako herrietako 10 eta 16 urte bitarteko gazteek haien sormena erabiliz euskararekin lotutako istorioak kontatzea eta hizkuntza

ohituren inguruan gogoeta egitea da. Lanak aurkezteko epea urriaren 5ean amaituko da. 2.000 euro banatuko dituzte, 500 euroko lau saritan, eta diru hori Irrisarri Land-en, Durangoko Azokako denda birtualean edo EITB-ko *Goazen!* eta *Irabazi arte!* telesailen merchandising-ean trukatu ahal izango da

Emaitza onak elgoibartarrentzat Uharte-Arakil-Beriain kilometro bertikalean

Uharte-Arakil-Beriain kilometro bertikala jokatu zuten domekan. Nafarroako Sakana haranean dagoen Uharte Arakil herritik (471 m) abiatu eta Beriain (1.494 m) mendia iristen zen erronka. Bost kilometroko distantzian 1.023 metroko desnibel positiboa gaindituta. Guztira 173 mendi lasterkerik lortu zuten proba amaitzea eta Loic Robert frantziarra (40:21) eta Oihana Azkorbebeitia abadiñoarra izan ziren azkarrenak. Bi elgoibartarrek hartu zuten parte proban, eta biek eskuratu zituzten emaitza onak. Ainhoa Lendinez Garatek bosgarren postua lortu zuen emakumezkoetan 56:37ko denborarekin. Bere ezaugarrietarako ez dela ibilbide egokiena dio Lendinezek, hasierako lautadan denbora asko galtzen duela eta. Aurtengoa baino denbora hobea ere egin izan ditu, 54 minutuan osatu izan baitu igoera aurreko urteetan. Halere, pozik dago anemiak jota aritu zelako eta amaitzea lortu zuelako. Eneko Etzaniz Irureta izan zen parte hartu zuen beste elgoibartarra. Saiklaren nagusiko 28. postua eskuratu zuen 49 minutu eta 28 segundoko



denborarekin. Junior mailan bigarren postuan sailkatu zen antxitxikari elgoibartarra, Ibai Angulo (47:14) azeptiarraren atzetik.

Mugertza krosa urtarrilaren 8an jokatuko dute



Juan Mugertza Nazioarteko krosaren 79. ekitaldia 2023ko urtarrilaren 8an jokatuko dela jakitera eman dute antolatzaileek. Mintxeta Atletismo Taldeko arduradunek azaldu dutenez, Mugertza krosak World Cross-Country Gold kategoria izango du berriro ere, World Athletics federakuntzak kros onenei ematen dien maila. "Krosa jokatzeko falta diren lau hilabeteotan erakundeekin, babesleekin eta laguntzaileekin nekazekin egiten saiatuko gara, lortutako mailari eusteko eta Elgoibar nazioartean erreferente izan dadin. Mintxetan ikusiko dugu elkar 2023ko urtarrilaren 8an", esan dute.

Lehen Mailako Euskadiko Aizkora Txapelketako finalerdia jokatuko dute domekan Olaizagan

Euskadiko Herri Kirol Federazioak antolatzen duen Euskadiko Lehen Mailako Aizkora Txapelketako finalerdietako bat jokatuko dute domekan, hilak 25, Olaizaga kiroldegian. Hamar aizkolari lehiatuko dira Elgoibarko finalerdian: Oier Kañamares, Iban Resano, J. Jose Lopez Azpilikueta, Hodei Ezpeleta, Josean Etxebarria, Xabier Zaldua, Xuban Kañamares, Alvaro Garcia Hoyuelos Jokin Urretabizkaia eta Luis Mari Txapartegi. Aizkolari bakoitzak sei pago enbor ebaki beharko ditu: bi kanaerdiko (54 ontza), bi 60 ontzako eta bi oinbiko (72 ontza). Finalerdia 12:00etan hasiko da. Euskadiko txapelketako finala azaroaren 27an jokatuko dute Bilbon, Miribillan. Emakume aizkolarien saioa ere antolatu dute domekarako. Laiene Pikabea, Maika Ariztegi eta Beatriz Tanco arituko dira aizkoran Olaizagan. Bi kanaerdiko enbor ebaki beharko dituzte.




 Arnaitz Rubio

Haundik bi garaipenekin hasi du Liga txapelketa



C.D. Elgoibarreko gizonen talde nagusiak, Haundik, Lesakan hasi zuen Ohorezko erregional mailako denboraldia, eta 0 eta 1 irabazi zuten Beti Gazte taldearen aurkako neurketa. Bigarren jardunaldiko partida Mintxetan jokatu zuten eta hori ere 1 eta 0 irabazi zuten, oraingoan Urola taldearen aurka. Hirugarren jardunaldian Oiartzun izango dute aurkari elgoibartarrek.

Palentziako Mendietara irteera, urriko lehen asteburuan



Peña Prieta (2.539 metro) eta Espigüete (2.451 m.) moduko mendiak igotzeko aukera izango dute Morkaikok eta Eibarko Klub Deportibok Palentziako Mendietara antolatu duten irteeran izena ematen dutenek. Urriaren 1ean, zapatuan, eta 2an, domekan, izango da mendi irteera. Bazkideentzako prezioa 100 eurokoa izango da, eta 120 euro ordaindu beharko dute gainerakoek. Irteerari buruzko xehetasun guztiak morkaiko.eus webgunean daude.

Ia 200 lagunek hartu dute parte Debabarreneko raidean

Morkaiko mendizale taldeak antolatzen duen Debabarreneko raidaren seigarren edizioa jokatu zuten zapatuan, bigarren urtez Deban. Proba nagusian, Abentura Raidean, 90 lagunek hartu zuten parte eta 85 parte hartzaile eduki zituen Familia raidak, haur eta helduak kontuan hartuta. Nagusiek 27 kilometro egin zituzten saltaka eta 35 kilometro mendiko bizikletan; 2.000 metroko desnibel positiboa orotara. Itziar eta Arbil mendi inguruetan ibili ziren, Arbilgo koba barruan ere osatu zuten proba berezi bat. Mutrikun ere ibili ziren, eskalada, rapel eta igeriketa proba bereziak jokatzen, eta Olatz auzora eta Kalbario ingurutara ere joan behar izan zuten zazpi bat orduko saioan. Emakumezkoetan zazpi

talde lehiatu ziren eta Supernovas taldea izan zen irabazlea. Gizonezkoetan 22 talde lehiatu ziren eta Capra Alpina taldeak lortu zuen lehen postua. Azkenik, Sopels Team gailendu zen talde mixtoetan lehiatu ziren 13 taldeen artean. Familia raidean lehiatu ziren lagunak ere Debako alamedako musika kioskoan batu ziren, antolatzaileek emandako azalpenak adi-adi entzuteko. Probari hasiera eman ostean, talde bakoitzeko txikiak korrika bizian joan ziren mapak hartzera. Mapa ondo aztertu ondoren, Deba inguruetan zeuden baliza ezberdinen bila aritu ziren. Antolatzaileek joko bereziak prestatu zituzten Debako hondartzan, eta slackline-a eta bizikletako proba berezi bat ere egin behar izan zuten. Argazki gehiago: barren.eus

📷 Manu Sanchez



LANA

Eskaerak

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Gauzez ere bai. Tituluak daukat. **631 425 686**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Beharrezkoak diren tituluak eta esperientzia ditut. Orduka, etxeko langile moduan edo gauzez lan egingo nuke. **697 730 662**

Lan bila nabil: 15 urteko esperientzia daukat adinekoak zaintzen eta etxeko lanak egiten. **669 967 171**

Adinekoak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile moduan aritzeko prest nago. **631 357 711**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Esperientzia handia. **671 677 160**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, etxetan zein enpresetan. Esperientzia handia. **622 023 451**

Adinekoak zaintzeko prest nago, goizez. Zaintzako ikastaroa amaitzen ari naiz, eta paperak legez ditut. **643 071 900**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. **643 278 344**

Eskaintzak

Elgoibarko mekanizazio-enpresak langilea behar du Danobat RP1200 artezteko makinan (rektifikadora) lan egiteko. Ezinbestekoa da barnealdean eta kanpoaldean mekanizazioan esperientzia izatea. Lan-kontratu mugagabea eskaintzen da. E-posta: **angel@swisslan.es**

DBH3-ko ikasle bati eskola partikularrak euskaraz emateko prest legokeen lagun baten bila ari gara. **636 235 219**

DBH2-ko ikasle bati klase partikularrak emateko pertsona behar da. **635 750 362**

OSPAKIZUNAK

1952an jaiotakoan kinto ospakizuna urriaren 8an. 13:00etan bilduko dira Kalegoen plazan talde argazkia ateratzeko. Ondoren, luntxa, Ibai Ondo erretegian. 14:30ean bazkaria, Sigma jatetxean. 60 euro ordaindu behar dira Laboral Kutxan, irailaren 30erako: ES44 3035 0007 2800 7114 2555

Merkatu txikiko iragarkiari bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiari ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta).

Autoak saltzea: 18€ .

Bestelakoak: 10€.


Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta).

Autoak saltzea: 15€.

Bestelakoak: 8€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p>administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enkateko Administrazioen Lantzaile Kontsekoa</p> <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure etxepeko lehenengo pisuaren kanpo aldeko burdin-ertza babesten duen harriaren zati bat erori egin da. Harri pusketak behean aparkatuta zeuden auto batzuen gainera erori dira, kalteak eraginez. Auto-jabeek komunitateari eskatu diete konponketaren dirua, baina guk esan diegu lehenengo pisuko bizilagunari eskatu behar diotela. Jakin nahi nuke kalte-ordain hori nork ordaindu behar duen.</p> <p>Erori den harri pusketari hori fatxadaren parte denez, izaera komuna dauka eta mantentze lanak komunitateari dagozkio. Mantentze lanak ez egin izana, beraz, komunitatearen ardura da. Hortaz, komunitateak egin behar dio aurre kalte-ordain horri, eta ez lehenengo pisuko etxe-jabeak.</p> <p>AHOLKUA: Egoera honetan garrantzitsuena ez da kalte materiala, baizik eta horrelako egoeretan sortzen den arriskua. Eroritako harriek behetik pasatzen den edozein oinezko harrapatu dezakete, eta horrek ondorio larriak eragingo lizkioke komunitateari, izan ere, erruaren dimentsioa eragindako kalteen arabera neurtzen da. Gertatu denez eta berriz gerta daitezkeen ez dakigunez, komeni da fatxadaren egoera aztertzea, horrelako egoerak ez daitezkeen errepikatu.</p> <p>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---


Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 688 634 044 bidailita.



Zorionak, **Ainere!** 9 urte, eta oso ondo pasa zure 9. urtebetetze egunean! Segi beti bezain alai! Patxo pila bat, familiakoen partez.




Zorionak, **Garazi,** hilaren 28an 7 urte beteko dituzulako. Ondo pasa zure egunean! Muxu handi bat, etxekoen partez.



Zorionak, **Noa,** asteartean 9 urte bete zenituelako. Muxu handi bat, familiakoen partez.



Zorionak, **Malen!** 5 urte handi! Atzo primeran ospatu genuen! Muxu handi bat!



Zorionak, **Markel,** asteazkenean 5 urte bete zenituelako. Segi horrelako mutil indartsu eta alaia izaten. Muxuak, familiakoen partez.



Zorionak, mutilak! Hilaren 14an bete zenituen zure 11 urte, **Luken Gisasola,** eta 21ean zure, **Luken Zulaika,** eta gaur, ondo bidean, elkarrekin ospatuko dugu denok. Segi orain arte bezain bizkor eta jator! Etxekoen eta lagunen partez, muxu bana. Gozatu!



Zorionak, **Paul,** asteartean 5 urte bete zenituelako! Primeran ospatu genuen! Patxo potolo bat etxekoen partez.

Erretratu bakarrekogurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrekogurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Aurrematrikulazio epea zabalik!

Irakasle eta metodologi berriak
Iraila doan izango duzue metodologi berria probatzeko!
Etorri eta informa zaitetz!

- Eskolako ingelesaren errefortzua
- Cambridgeko azterketak. LH, DBH eta helduak
- Talde txikiak

667 261 248

IKASGO
ACADEMY

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademielgoibar@gmail.com

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARREN
Aita Agirre Kulturagunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

EXPRESS ESKAINTZAK!

SUABER 5-7140 SERIEKO ARROPA-GARBIGAILUA

339 €

A T G B

- 7 kg karga
- 1400 b/min.
- 15 programak
- Garbiketa azkarra 15 min
- Etenaldia funtzioa
- VLDC motor inverter-a

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

23 BARIKUA

20:00 / 23:00 Sotoko Hotsak. Sinuösek antolatuta, Rukularen kontzertua udaltzainen aurreko plazan, 20:00etan. 23:00etan, Sotoan, Elle Belga. Sotokorako sarrera, 5 euro.

24 ZAPATUA

Azken zapatuko feria

9:00-14:00 Elgoibarko baserrietako produktuen salmenta. Kalebarren plazan.

11:00 Txosna: C.D. Elgoibarrek pintxoak salduko ditu.

12:00-14:00 Umeentzako tailerra, Kalebarren plazan.

Eguerditik arratsaldera Ganadu erakusketa, Kalebarren plazan.

9:30 Ibai garbiketa. Baso Biziak taldeak antolatuta. Usuako parkean.

12:30 Erraldoi, buruhandi eta zezenzikletak. Kalebarren plazatik.

18:30 Gararock jaialdia, Mendaron. Bost talderen kontzertuak eta 'Kontukontzertuak' ikuskizuna.

25 DOMEKA

12:00 Euskadiko Aizkolari Txapelketako finalerdia. Olaizaga kiroldegian.

26 ASTELEHENA

18:00 Hausnarketa saioa: 'Traba egiten duen titi bakarra saltzen ez dena da'. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa. Elebitan. Lilan.

28 EGUAZTENA

19:00 'Biba Hasier!' Hasier Etxeberriaren oroimenez. 'Herria, hizkuntza kultura. Joxe Azurmendi eta Lorea Agirre solasean. Aita Agirre kulturguneko areto nagusian.

29 EGUENA

18:30 Hitzaldia: 'Ez du hitz egingo, ez'. Lengoaiaren nahaste espezifikoaren egunaren harira. Noemi Fariña psikologo eta logopedak emango du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

30 BARIKUA

19:00 Zine foruma: 'La teta asustada'. Loredi Salegik dinamizatuko du. Haizeak antolatuta, Lilan.

SAN MIGEL JAIAK

Irailak 24,25 eta 29

24 ZAPATUA

12:30 Kanpai jotzea, jaiei hasiera emateko.

13:00 Umeen jolasak.

14:30 Bazkaria. Bazkal ondoren, umeentzako puzgarriak eta txapa tailerra.

18:00 Bolo txapelketa.

20:00 Haritz dantza taldearen emanaldia.

21:30 Afaria.

Ondoren, erromeria FAN&GO taldearekin.

OHARRA: Autobusa egongo da iluntzeko 19:00etatik 05:00ak arte etenik gabe, Txarridunako errotondatik.

25 DOMEKA

12:00 San Migelgo artzain txakur txapelketa.

17:00 Idi demak.

Ondoren, Baltzola eta Andonegi trikitilariak.

29 EGUENA

11:00 Meza.

Jarraian, Baltzola eta Andonegi trikitilariak.

13:00 Pilota partida.

14:30 Bazkaria.

Zinea

Iñaki Agirre zinemaldia



'París, distrito 13'

23 barikua: 19:00

'Red rocket'


24 zapatua: 19:00 / 22:15

26 astelehena: 21:00

Botika ordutegiak: 09:00-13:00 7 16:00-20:00


GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

<p>Egunez Barrenetxea</p> <p>Iluntzean Barrenetxea</p>	<p>24 ZAPATUA Egunez ■ Ibañez / ■ Yudego</p> <p>Iluntzean ---</p>	<p>25 DOMEKA Egunez ■ Ibañez</p> <p>Iluntzean ■ Ibañez</p>	<p>26 ASTELEHENA Egunez Barrenetxea</p> <p>Iluntzean Barrenetxea</p>
<p>27 MARTITZENA Egunez Arriola</p> <p>Iluntzean Arriola</p>	<p>28 EGUAZTENA Egunez ■ Fernandez</p> <p>Iluntzean Yudego</p>	<p>29 EGUENA Egunez Yudego</p> <p>Iluntzean Yudego</p>	<p>30 BARIKUA Egunez ■ Oruesagasti</p> <p>Iluntzean Arriola</p>
<p>■ Fernandez: Herriko enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142</p>	<p>■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638</p>	<p>■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384</p>	<p>Urte gutzian, gauzez: 22:00-09:00 Esther Mendinueta Berastegui Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) 943 820 106</p>



Ma Carmen Fundazuri Onaindia

2022ko irailaren 17an hil zen, 90 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



<h1 style="margin: 0;">Osasun gida</h1>	 <p>RPS233/13 943 366 377 San Bartolome, 22 20870 Elgoibar</p>	<p>NATUR HOUSE Ainara Iriando Ansola GIZA ELKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA RPS 203/16 Toribio Etxebarria, 22 Eibar 677 551 850</p> 	<p>fisio&mas Fisioterapia aurreratua eta Kirol Berregokitzea Trenbide kalea, 13 943 740 191 / 667 953 698 www.fisio-mas.com RPS 177/12</p>
<p>RPS 271/12</p>  <p>Jausoro plaza, 6 behea Elgoibar 943 531 953 669 565 745</p> 	<p>RPS 183/12</p>  <p>Elgoibar 943 740 359 Deba 943 192 192</p>	<p>leku eder hartz klinika RPS 171/12 Elena Herrero Lobo Alta Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar 943 530 053</p>	<p>federópticos ikus RPS 65/07 San Bartolome, 10 Tel.: 943 743 734</p>



Jose Ramon Cabrera



Iñaki Goitia

"Jasangaitza egin zait malko bakoitzean jario duen patetismoa, eta deabruaz mintzo arren, ezin izan dut errukia sentitzea saihestu"

Deabrua bera ikusi omen dute, noiz edo noiz, taberna-zulo batetik bestera noraezean. Gaur, haietariko baten barran ukalondoak jarrita dagoen honetan, zurrutean dabil etengabe; whisky bat bestearen atzetik doakio zintzurrian behera.

"Deabruak, asper-asper eginda dagoenean, isatsarekin euliak hiltzen ditu", dio errefrauak, eta honako hau taberna-zulo ziztrin bat izaki, nahi beste euli ditu harat-honat. Behi mantso bati azalean itsasten zaizkion antzera, deabruak euliz josita du azala. Makal du, ordea, buztana, aurpegiera bezain gogogabe. Begirada edalontzian galdua, jada ezer ez dela berdina dio marmarka, ez duela nabari sabelean behinolako kilimarik. Ongira pasatzea du buruan —bere arima zuritze aldera edo... horrelakorik baldin badu, zeharo belztua, izatekotan ere—, baina postu hori nirea dela jakinarazi diot. Ezin izan dio negarrari eutsi.

Jasangaitza egin zait malko bakoitzean jario duen patetismoa, eta deabruaz mintzo garen arren, ezin izan dut errukia sentitzea saihestu. Azken finean, nahiz eta lan ordutegirik kanpo egon, nire lanpostua berearen baitan dago; nire ontasuna, bere maltzurkerian. Eta adin honekin nekez aldatuko ditugu bion rolak. Izan ere, adinean gora egin dut, eta zahartu ere zahartu naiz.

"Deabruak gehiago daki zaharra izateagatik deabrua izateagatik baino". Horra beste errefrau bat. Eta nire deabru koitaduak ondotxo daki —anai bikiak izaki, bera ere ni zahartu naizen heinean zahartu baita— bere rolean jarraituko duela eternitate guztian zehar, nahi edo nahi ez. Zaharrak izango gara, bai, baina baita hilezkorrak ere.

Besoarekin sorbalda inguratu eta beste whisky batera gonbidatu dut. Bikoitza. Bihar beste egun bat izango da.



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
 cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162

Jon Aranao
 Guillermo Torres



Elgoibar
 Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
 Astakeretatik ostirakeraz: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
 Larunbatok: 11:00 - 13:00

*leopaindegi zerbitzua daskagu.
 Deitu ordua hartzeko.*

Elgoibar Ikastolan

elkarrekin sustriak sendotuz



pausoz
 pauso
 mugak
 gaindituz

www.elgoibarikastea.eus
 elgoibar@elgoibarikastea.eus
 T. 943 741 44 41



Matrikulazioa 0-1

Urte osoan zabalik

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
 optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar - 943 740 359
 www.uzurioptika.com

Betaurrekoak maite ditugu

2x1
 betaurreko
 graduatuetan



(*galdetu baldintzak)

G R E M I O N E N G I D A

ARROZTEGIA

Ulazia

ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albixuri industrialdea, 1-O/ 1-P
943 740 547



ELEKTRIZITATEA

egoluz ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: 630 957 345
677 512 462

Pedro Migel Urruzuno, 14 behea
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

ITURGINTZA

ONGI Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523

ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

ARROZTEGIA

iraolagoitia

arroztegia - altzariak - etxe-aldaketak
Kurutz-gain industrialdea, 9
20850 Mendara
943 756 112
636 497 485

www.iraolagoitia.com

LEIHOAK

LODOSO LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223
lodosof@gmail.com

943 743 490

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

ARROZTEGIA

MAR
ARROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978

carpinteriamar@hotmail.com



PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urruzuno, 8
943 740 512
Faxa: 943 743 565

tienda@pagoagasasa.com
www.pagoagasasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasasa.com
943 740 279

ARROZTEGIA

Biena S.L.
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA

Ermosano kalea, 15, behea - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

